

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

173/2016 Diputatu Nagusiaren Foru Dekretua, ekainaren 7koa, onartzen duena, Arabako udalerrietan hurbileko merkataritza eta artisau merkataritza sustatzeko laguntzen deialdia onartzea

Zerbitzuak eskura edukitzea oinarriko faktore bat da landa inguruneko biztanle kopuruari eusteko.

Arabako Lurralde Historikoa 51 udalerrik osatzen dute, eta horiek zazpi kuadrillatan elkarturik daude. Udalerririk horietako biztanleak, neurri handi batean, pertsona adintsuak dira eta, askotan, ez daukate beren lehen beharrezkoak betetzen dituzten erosketak txikiak (janariak eta/edo etxeko gauzak) egiteko dendarik.

Beste alde batetik, gure lurraldeko artisauek ez daukate lokalik beren produktuak jarraituki saldu ahal izateko eta joaten diren azoketan egiten dituzten salmentak osatzeko.

Horrelako denda txikiak martxan jartzeko, askotan, obrak, erreformak eta inbertsioak egin behar dira lokaletan. Obra horien kostua garrantzizko eragozpen bat da, negozio horiek kudeatzeko interesa izan dezaketenei atzera eragiten diena.

Arabako Foru aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Sailak, bere eginkizunen artean, honako hauek ditu: merkataritza eta artisautza arloak sustatzea, eta gure lurraldean diharduten eragileekiko eta erakunde publiko nahiz pribatuekiko lankidetzak bultzatzea.

Orain dela gutxi abian jarri dira lurralde honetan merkataritza sustatzeko zeinbait ekimen, hala nola Arabako udalerrietako espazio publikoetan merkataritza indarberritzeko laguntzen eta landa merkataritza sustatzeko jarduerak egiteko laguntzen deialdiak.

Laguntza horien osagarri moduan, oraingo laguntza deialdi hau garatzeko asmoa sortu da, lurraldeko udalerririk eta artisau elkarteek oinarriko edo artisau erako denda txikiak kokatu daitezkeen espazioak erabilgarri edukitzea sustatzeko, eta gero haien ustiapena beraien ardura hartu nahi duten sustatzaileei laga ahal izateko. Horrela, bi helburu lortu nahi dira: alde batetik, udalerririk horietatik hurbil dauden dendak irekitzea sustatzea, bertako ekonomia eta gizarte jarduera bizkortuz; eta, beste aldetik, merkataritza ekimena abian jartzearen ondorioz lanpostuak sortzen laguntzea.

Premisa horiek oinarri hartuta, eta erakundearen arteko lankidetzaren eta lurralde oreka garatzearen mesedetan, Arabako Foru Aldundiak aurreikusi du abian jartzea Arabako udalerrietan hurbileko merkataritza eta artisau merkataritza sustatzeko laguntzen deialdia.

Arabako Foru Aldundiak, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumenen eremuan ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartu zituen; araudi horrek arautzen ditu Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzak lehia araubidearen pean ematen dituen dirulaguntzak.

Oinarri horiek onartzearen ondorioz, eta ahalik eta zabalkunderik handiena ematearren eta publizitatearen, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, laguntzetarako deialdia ezarri behar da, merkataritza sustatzeko ekimen horiek berari lotu beharko baitaizkio.

Aginduzko txostenak aztertu dira,
Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako udalerrietan 2016ko ekitaldian hurbileko merkataritza eta artisau merkataritza sustatzeko laguntzen deialdi publikoa onartzea, gehienez ere 100.000,00 euroko hornidurarekin. Deialdia ebazpen honen eranskinean doa.

Bigarrena. Deialdia honako hauek aintzat harturik arautuko da: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzan lehia araubidean dirulaguntzak emateko aplikagarri diren oinarri orokor arautzaileak (Diputatuen Kontseiluaren 26/2016 Foru Dekretua, martxoaren 15ekoa, ALHAOn 2016ko 38. zenbakian argitaratua, martxoaren 30ean, asteazkena), baita ebazpen honen eranskinean xedatutakoa ere.

Hirugarrena. Ebazpen honen bidez araututako dirulaguntzak ondoko aurrekontu partida hauen kontura esleituko dira:

- 70.000 euro, 2016ko aurrekontuko 30.5.02.36.01.762.00.01 partidaren kontura.
- 30.000 euro, 2016ko aurrekontuko 30.5.02.36.01.781.00.01 partidaren kontura.

Esleipena egin eta gero aurreko partida horietakoren batean gerakinik izatekotan, deialdi honen epe berri bat onartu ahal izango da 2016an zehar, eta gerakinak partida batetik bestera aldatu ahal izango dira.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Haren aurka, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 116. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu dakioko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean haren aurka egin daiteke administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioan, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2016eko ekainaren 7a

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta
Foru Administrazioaren saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria
JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

ERANSKINA

Arabian 2016an hurbileko merkataritza eta artisau merkataritza sustatzeko laguntzen deialdia

1. artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea honako hau da: lurraldeko udalerrri txikietan bertako biztanleen oinarriko beharrianak betetzeko eta/edo bertoko produktuak saltzeko denda txikiak kokatu daitezkeen espazioak erabilgarri izan daitezela sustatzea, eta Arabako artisau egindako produktuak saltzeko espazioak erabilgarri izan daitezela artisau elkarteetan.

2. artikulua. Aurrekontu partida eta gehieneko zenbateko osoa

Deialdi honen bidez araututako dirulaguntzak aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira:

- 70.000 euro, 2016ko aurrekontuko 30.5.02.36.01.762.00.01 partidaren kontura.
- 30.000 euro, 2016ko aurrekontuko 30.5.02.36.01.781.00.01 partidaren kontura.

Esleipena egin eta gero aurreko partida horietakoren batean gerakinik izatekotan, deialdi honen epe berri bat onartu ahal izango da 2016an zehar, eta gerakinak partida batetik bestera aldatu ahal izango dira.

3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1. Honako hauek izan daitezke erakunde onuradunak, eta eskuratu ditzakete laguntza lerro honetan jasotzen diren onurak:

– Arabako Lurralde Historikoko lurraldeak, 1.000 biztanle baino gutxiago badituzte eta ez badaukate lehen premiako produktuak (janariak edo etxeko gauzak) erosteko eta/edo bertoko produktuak saltzeko dendarik.

– Egoitza Araban duten irazteko xederik gabeko artisau erakundeak, Arabako edozein udalerritan artisau produktuak saltzeko lokal bat eskaini nahi dietenak beren kideei.

3.2. Ezin izango dira onuradun izan beren onartze prozesuan edo funtzionamenduan sexuagatik bereizketa egiten duten erakundeak, Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 24.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Era berean, ezin izango dira lehiatu, dagokien zigorrak ezarritako denboran, sexuagatik bereizketa egiteagatik zigor administratibo edo penala jaso duten erakundeak, ez eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen ondorioz debeku horrekin zigortutakoak ere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak, Euskadiko Ogasuna antolatzen duten printzipioen Legearen testu bateratua onartzen duenak, 50.5 artikuluan jasotzen duen bezalaxe (Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere amaierako seigarren xedapenean idatzita utzi zuen moduan).

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

4.1. Diruz lagundu ahal izango dira proiektuak abian jartzeko inolako zalantzarik gabe lagungarriak diren gastuak, beharrezkoak direnak eta ezarritako epean egiten direnak, esate baterako honako hauek:

a) Lokalak aurretik adierazi diren produktuen salmentarako egokitzeko eta eraberritzeko obrak. Diruz laguntzeko diren lanen barruan, egokitze eta eraberritze obrez gainera, horiek gauzatzeko proiektuak sartu ahal izango dira, baita lokalak behar dituen instalazio lagungarriak ere (elektrizitatea, jagoletza, berogailua, etab.)

b) Egiteko den jarduerarekin zerikusia daukaten altzariak, makinak eta merkataritza ekipamendua erostea. Ekipamendu horren barruan, honako hauen erosketa sartu ahal izango da: erakusketarako beira-arakak, ordenagailuak, saltokiko terminalak, inprimagailuak, barra-kodeen irakurgailuak eta ordenagailuen beste osagai periferikoak.

4.2. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100eraino azpikontratatzea baimentzen da, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen Lege Orokorrak, 29. artikuluan ezarritako baldintzak betez gero.

5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak egiteko epea

Deialdi honen onuradun gertatzen diren erakundeek laguntza eskaeraz gero egin beharko dituzte lanak eta/edo inbertsioak, eta horiek 2016ko abenduaren 16a baino lehen burutu beharko dira.

6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

6.1. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuari aplikatzekoa zaion dirulaguntza ehuneko % 90 izango da, eskatzaile bakoitzeko 20.000,00 euroko mugarekin.

Eskaera bat dirulaguntza jasotzeko modukoa izan dadin, dirulaguntzaren zenbatekoa gutxienez 1.500,00 euro izango da.

7. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Jardun horietarako jaso daitezkeen gainerako laguntzak bateraezinak izango dira ebazpen honetakoekin, zer motatakoak diren edo zein organo edo administraziok ematen dituen gora-behera.

Dirulaguntza eta dagozkion berandutze interesak itzultzeko eskatu beharko da, baldin eta Arabako Foru Aldundiak jakiten badu erakunde onuradun batek beste dirulaguntza bat edo batzuk jaso dituela, emandakoarekin bateraezinak direnak, eta ez diela uko egin behar den bezala.

8. artikulua. Prozedura bideratzeko organo eskudunak

8.1. Prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

8.2. Balioespen Batzordea honela eratuta egongo da:

– Batzordeburua: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria edo berak eskuordetzen duen pertsona.

– Batzordekidea: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren burua edo berak eskuordetzen duen pertsona.

– Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

9. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

9.1. Eskabideak Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz), edo itundutako udalen erregistro orokorretan, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari zuzendu behar zaizkio (Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritza). Hori guztia, kalterik egin gabe azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 38.4. artikuluan ezarritakoari.

9.2. Eskaerak aurkezteko 30 egun naturaleko epea egongo da, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

9.3. Ebazpen honetan araututako laguntzen eskaera egitean agiri hauek aurkeztu behar dira:

– Laguntzen deialdian sartzeko eskaera.

– Paragrafo hauek jasoko dituen adierazpena:

– Erakunde eskatzaileak bere burua behartzen duela eskaera egiazkoa den baieztatzeko behar diren egiaztagiri guztiak aurkeztera, eta Arabako Foru Aldundiak eskatzen dizkion argibide osagarriak ematera.

– Erakunde eskatzaileak ez duela laguntza hauen onuradun izan ahal izateko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, ezarritako debekuetako bat ere.

- Ez dela bestelako laguntzarik eskatu dirulaguntza honetarako aurkeztutako jardunetarako.
- Dirulaguntzaren xede diren jardunen azalpena, eta jardun horiek egiteko arrazoiak; eta jardun bakoitzaren aurrekontu banakatua.
- Lana egingo duen enpresaren eskaintzaren fotokopia.
- Ondasuna eman aurretik eskatutako hiru eskaintzen fotokopia, baldin eta lanek kontratu txikietarako ezarritako mugak gainditzen badituzte (50.000,00 euro obretarako eta 18.000,00 euro gainerakoetarako); eta zein eskaintza aukeratu den eta hautaketa horretarako arrazoiak azaltzen dituen agiria.

10. artikulua. Proiektuak hautatzeko eta balioesteko irizpideak

10.1. Aurkeztutako jarduerak, oro har, ondoren adierazten diren irizpide eta puntuazioen arabera balioetsiko dira:

Udalentzat:

1. Denda kokatuko den udalerritik merkataritza eskaintza zabala duen herrigune hurbilenerako (Gasteiz, Laudio, Amurrio) distantzia (40 puntu).

40 km baino gehiago	40
25 – 40 km.	30
10 – 25 km.	20
10 km baino gutxiago	10

2. Aurkeztutako eskaeraren definizio eta kalitate maila eta edukia, eta hura aztertze beharrezkoak diren agiri guztiak hasieratik bertatik aurkeztu izana (gehienez ere 30 puntu).

Maila altua	30
Ertaina-altua	25
Ertaina	20
Ertaina-baxua	15
Baxua	10

3. Merkataritza lokala kokatuko den udalerriko biztanle kopurua (30 puntu).

1.000 eta 750 biztanle arteko udalerriak	30
750 eta 500 biztanle arteko udalerriak	20
500 biztanletik beherako udalerriak	10

Artisau elkarreentzat:

1. Denda berriaren eragina elkartutako artisauen salmentetan (40 puntu).

Altua	40
Ertaina-altua	30
Ertaina	20
Ertaina-baxua	10
Baxua	5

2. Aurkeztutako eskaeraren definizio eta kalitate maila eta edukia, eta hura aztertzeko beharrezkoak diren agiri guztiak hasieratik bertatik aurkeztu izana (gehienez ere 30 puntu).

Maila altua	30
Ertaina-altua	25
Ertaina	20
Ertaina-baxua	15
Baxua	10

3. Aurreikusten diren lanpostu berriak (30 puntu)

Bi lanpostu berri baino gehiago	30
Bi lanpostu.	15
Lanpostu berri bat	5
Lanpostu sorkuntza garbirik ez	0

10.2. Dirulaguntza emango zaien erakundeak zehaztu eta haien arteko azken hautaketa egiteko, eta bakoitzari emango zaion dirulaguntza zenbatekoa izango den zehazteko, Diputatuaren Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren 6. artikuluan zehaztutakoari jarraituko zaio.

11. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epea

11.1. Organo eskudunak, Balioespen Batzordearen proposamenez, bidezkoa deritzon ebaizpena hartuko du. Ebazteko epea Diputatuaren Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko da.

11.2. Ebazpenak gutun ziurtatuaren bidez jakinaraziko dira. Edonola ere, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatuak, 59. artikuluan ezartzen duen moduan jokatu da.

11.3 Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Haren aurka, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 116. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu dakioke Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke administrazioarekiko auzietarako Gasteizko auzitegietan, hau jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

12. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak

Dirulaguntzaren xedearekin zerikusia duten komunikazio, publizitate eta zabalkunde ekintza guztiak, baita edozein ekitaldi publiko nahiz pribaturen, aurkezpen edo amaiera ekitaldien eta antzekoen antolaketa ere, alde aurretik Arabako Foru Aldundiarekin adostu beharko dira, bere irudi korporatiboaren inguruan berak ezartzen dituen jarraibideei jarraituko zaie, eta bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira, herritarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea modu eraginkorrean bermatuz.

13. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa eta ordainketa

13.1. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza ordaindu aurretik, eskatzaileak jardunak egin izana justifikatzeko azken memoria aurkeztu behar du beranduenik ere 2016ko abenduaren 16an, beste agiri hauekin batera:

- Justifikazio fakturen zerrenda; honako hauek adierazi behar dira: hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkipen data eta ordainketa data, hala badagokio.
- Justifikazio fakturak ez direla bestelako dirulaguntza deialdietara aurkeztu ziurtatzen duen adierazpena.
- Justifikazio fakturak (jatorrizkoak zein kopia konpultsatuak).
- Aurkeztutako fakturak ordaindu izana frogatzen duten agiriak (banketxearen zigilua duten banku transferentziak edo P kontabilitate agiriak)

Baldin gasturen baten zenbatekoa kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoa adinakoa edo handiagoa bada (50.000,00 euro obretan edo 18.000,00 euro gainerakoetan), honako hauek aurkeztu beharko dira, hautaketaren justifikazioaz gainera, baldin eta hautatutako eskaintza ez bada onena ekonomia aldetik: hiru eskaintza eta, hautatutako eskaintza onuragarriena ez bada, justifikazio txostena, ez bazen aurkeztu eskaera egiteko unean eta, geroago, gastu erreala kontratu txikietarako ezarritako mugara iritsi bada edo hura gainditu badu.

Nolanahi ere, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak aukeran izango du beste dokumentu batzuk ere aurkeztea, egokia baderitzo memorian aipatzen dena egiaztatzeko.

13.2. Baldin onuradunak fakturaren baten ordainketa justifikatzeko badu, dirulaguntza ordaindu ahal izango da, justifikatu beharreko aurrerakin moduan. Hala egiten denean, eskatzaileak aurkezteke dituen egiaztagiria 2017ko apirilaren 7a baino lehen aurkeztu beharko ditu.

Justifikatzen ez bada, aurreratutako dirulaguntza itzuli beharko da, dagozkion berandutze interesekin batera.

14. artikulua. Garapena

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio ebazpen hau behar bezala garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro eman dezan.

15. artikulua. Azken klausula

Foru agindu honetan ezarritako prozedura Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorretan ezarritakoaren mendean dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mendean ere: 3/1997 Foru Araua, otsailaren 7koa, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentziena; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzena; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, onartzen duena azaroaren 17ko 38/2003 Legearen (Dirulaguntzen Lege Orokorraren) Erregelamendua, eta horrez gero dirulaguntzei buruz emandako gainerako xedapenak.